

BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA

3627

AGINDUA, 2022ko uztailaren 27koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, zeinaren bidez onartzen baitira, 2022rako, Euskal Autonomia Erkidegoko elikakatea eta zuraren katea digitalizatzeko laguntzen deialdiaren oinarriak.

Eusko Jaurlaritzak Euskadiko Eraldaketa Digitalerako Estrategia 2025 Europako estrategiaren testuinguruan zehaztu du.

Eraldaketa digitaleko testuinguru batean gaude gizartearen esparru guztietan, eta horrek eragina du nola ekonomian hala gizartean. Jasangarritasun-helburuei jarraikiz, Europako Batzordeak, Europako Parlamentuaren eta Europako Kontseiluaren erregelamendu-proposamen baten bidez, Europa Digitala Programa 2021-2027 ezarri du. Programaren helburu orokorra EBren, estatu kideen eta industriaren inbertsioak sustatzea da, Europako ekonomiaren, industriaren eta gizartearen eraldaketa digitala bultzatzeko eta, horrela, lehiakortasuna hobetzeko, eten digitala murrizte eta EBren autonomia estrategikoa indartze aldera.

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskadi 2030 Plan berriak (ZTBP Euskadi 2030) islatzen duen bezala, gure autonomia-erkidegoak hiru esparrutako eraldaketa bati egin behar dio aurre: teknologiko/digitala, energetiko/klimatikoa eta sozial/sanitarioa. Iraultza teknologiko/digitalak ekonomiaren sektore guztiei eragingo die. Sektore horiek trantsizio-prozesu batean daude antolamendu-metodo tradizionalen eta digitalizazioan oinarritutako antolaketaren artean. Horretarako, prozesuen automatizazioan eta hobekuntzan aurrera egiten ari dira, baita soluzio malguak eta robotizazio, fabrikazio gehigarri edo konektibitateko teknologiak txertatzen ere makinen eta ekipamenduen artean, hori baita adimen artifizialeko eta big datako teknologiak aplikatzeko funtsa.

Digitalizazioa, ikerketa, garapen teknologikoa eta berrikuntza herrialdeen garapen ekonomikoaren adierazleak dira, baita produktibitateko, lehiakortasunerako eta hazkunde jasangarriko faktore erabakigarriak ere. Euskadi, azken hamarkadotan, ahalegin publiko eta pribatu bateratua egiten ari da espezializazio adimendunaren eta ezagutza-gizartearen sustapenean funtsatuta, Euskadi Europako berrikuntzagune bihurtzea izanik lehentasunezko helburua.

Euskadi egoera aurreratuan dago bere ekonomia eta gizartea Europar Batasunaren ingurunean digitalizatzeari dagokionez, Ekonomia eta Gizarte Digitalen Europako Indizearen arabera (DESI). EBk, izan ere, indize hori erabili ohi du EB-28ko herrialdeen bilakaera konparatua neurtzeko, eta horri jarraikiz, Euskadi zazpigarren postuan zegoen 2020an. Indize horrek bost alderdi neurtzen ditu: konektagarritasuna; giza kapitala; Interneteko zerbitzuen erabilera; teknologia digitalak enpresetan txertatzea; eta zerbitzu publiko digitalak. Euskadi bost alderdi horietatik lautan dago lehen zortzi herrialdeen artean; Interneteko zerbitzuen erabilera da salbuespen bakarra.

Beste sektore batzuetan eraldaketa digitalerako bide hori onartuta badago ere (izan ere, zenbait sektoretan jada hasita dago), AZTIk (Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko teknologia-zentro sektorial egiaztatua, elikagaien eta itsasoaren ikerketan espezializatua) elikagai-industriari buruz egin berri duen 4.0 industriaren diagnostikoaren arabera, elikagai-sektorea moteldu egin da, duen kasuistika espezifikoaren ondorioz. Elikagaiak heterogeneoak dira eta iraungi egiten dira; horregatik elikagaiak manipulatzeko eta eraldatzeko ohi baino konplexuagoa da.

Kontuan izan behar da, gainera, elikagaien eta zuraren balio-kateko enpresen ezaugarri komun bat tamaina dela, neurri handi batean enpresa txiki eta ertainek eta mikroenpresek osatzen baitute. Halaber, badakigu sektore hori tradizionala dela, eta, orokorrean, industrializazio-maila handiagoa duten beste sektore batzuetan baino motelago sartzen direla teknologia eta prozesu berriak.

Elikaduraren balio-kateari Euskadiko BPGd-aren % 10,6 dagokio, eta 31.000 bat enpresa izanik, guztira 95.000 enplegu baino gehiago sortzen ditu. Zuraren balio-kateari, berriz, BPGd-aren % 1,54 dagokio, eta 18.000 lanpostu sortzen ditu. Digitalizazioak eta teknologia digitalen erabilera adimendunak zeregin erabakigarria dute enpresen berrikuntza, lehiakortasuna eta hazkundea arrakastatsua izan daitezen lortzeko, eta horiek merkatuan kokapen sendoagoa izan dezaten lortzeko aukerak eskaintzen dituzte. Digitalizazioak berrikuntza ugari erraztu ditzake prozesuetan, eta, beraz, ETEei aukera ematen die lehiakideengandik bereizteko; esate baterako, fabrikazio-enpresei eta enpresa txikizkarietara aukera ematen die ekoizpenaren eraginkortasuna hobetzeko, fabrikazio-prozesuak eta hornidura-katea automatiza baititzakete.

Agindu honen xedea digitalizazio-proiektuetan eta 4.0 teknologia txertatzeko proiektuetan gastu eta inbertsioetarako laguntzen deialdia egitea da, Euskadiko elikakateko eta zuraren kateko lehiakortasuna hobetzeko eta baliabideak optimizatzeko.

Agindu honen bidez iragarritako laguntzak jasota daude Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko Sailaren 2021-2023 urteetarako Dirulaguntzen Plan Estrategikoan. Plan estrategiko hori Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren 2021eko martxoaren 17ko Aginduaren bidez onartu zen (Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko Sailaren 2021, 2022 eta 2023rako dirulaguntzen plan estrategikoa onartzekoa), eta Eusko Jaurlaritzaren «www.euskadi.eus» webgunean argitaratuta dago, sailari buruzko eremuan, «Planak eta proiektuak» atalean.

Agindu honen esparruan eman beharreko laguntzak Estatuarenak izango dira, eta beraz, honako hauek aplikatu beharko dira: Europako Batzordearen 1407/2013 (EB) Erregelamendua, 2013ko abenduaren 18koa, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikuluko minimis laguntzei aplikatzeari buruzkoa; Europako Batzordearen 1408/2013 (EB) Erregelamendua, 2013ko abenduaren 18koa, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikuluko nekazaritza-sektoreko minimis laguntzei aplikatzeari buruzkoa; Europako Batzordearen 717/2014 (EB) Erregelamendua, 2014ko ekainaren 27koa, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikuluko arrantza- eta akuikultura-sektoreko minimis laguntzei aplikatzeari buruzkoa; Europako Batzordearen 360/2012 (EB) Erregelamendua, 2012ko apirilaren 25ekoa, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikuluko interes ekonomiko orokortzat jotzen diren zerbitzuak ematen dituzten enpresentzako minimis laguntzei aplikatzeari buruzkoa; eta aplikagarriak izan daitezkeen Estatuko nahiz Europar Batasuneko zuzenbideko gainerako xedapenak.

Aurrekontu-zuzkidura nahikoa dago Euskal Autonomia Erkidegoko 2022. urteko Aurrekontu Orokorra onartzen dituen 2021eko abenduaren 23ko 11ko 11/2022 Legeak baimendutako kredituen arabera, eta, Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu-araubideari dagokionez indarrean dauden lege-xedapenen testu bategina onartzen duen maiatzaren 24ko 1/2011 Legegintzako Dekretuan ezarrita dagoenari jarraikiz, laguntza-deialdi honek aurrekontu-estaldura nahikoa du.

Eta, Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearekin bat etorriz (lege horren 26.4 artikuluko arabera, Jaurlaritzako kide gisa dagozkien eskumenei kalterik egin gabe, sailburuek beren sailari dagozkion gaietan administrazio-xedapen orokorrak eta ebazpenak emateko eskudantzia izango dute),

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Deialdia.

Onartzea, 2022rako, Euskal Autonomia Erkidegoko elikakatea eta zuraren katea digitalizatzeko laguntzen deialdiaren oinarriak, agindu honen eranskinean jasota daudenak.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA.– Errekurtsoak.

Agindu honen aurka, interesdunek berraztertzeko errekurtsoa jar diezaiokeste Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuari, hilabeteko epean. Bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar dezakete Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hileko epean. Kasu bietan, agindua argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da epea.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA.– Ondorioak.

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko uztailaren 27a.

Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburua,
MARÍA ARANZAZU TAPIA OTAEGUI.

I. ERANSKINA

1. oinarria.– Xedea eta helburua.

1.– Agindu honen xedea da Euskal Autonomia Erkidegoko elikakatearen eta zuraren katearen industrian digitalizazioa txertatzeko eta sustatzeko laguntzen deialdia egitea, lehiakortasuna hobetze aldera.

2.– Agindu honetan araututako laguntzek hiru helburu dituzte: batetik, enpresei laguntzea digitalizazio-prozesua hasten, sistema digitalak txertatuz; bestetik, digitalizazio-fase aurreratuan dauden enpresei laguntzea, 4.0 teknologia txertatzearen bidez; eta, azkenik, Euskal Autonomia Erkidegoko elikakatean eta zuraren katean eragina duten digitalizazio-proiektu estrategikoak sustatzea.

2. oinarria.– Dirulaguntzen izaera.

Programa hau gauzatzerakoan eta ebazterakoan, publizitatearen, lehiaren eta objektibotasunaren printzipioak bete behar dira.

Agindu honetan jasotako laguntzak lehiaketa prozeduraren bidez adjudikatuko dira, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginaren 51.4 artikuluan ezarritakoaren arabera (azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuaren bidez onetsi zen Testu Bategina).

Programa honen esparruan emandako laguntzak itzuli beharrik gabeko dirulaguntzak izango dira.

Agindu honen esparruan eman beharreko laguntzak Estatuarenak izango dira, eta beraz, honako hauek aplikatu beharko dira: Europako Batzordearen 1407/2013 (EB) Erregelamendua, 2013ko abenduaren 18koa, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua minimis laguntzei aplikatzeari buruzkoa; Europako Batzordearen 1408/2013 (EB) Erregelamendua, 2013ko abenduaren 18koa, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua nekazaritza-sektoreko minimis laguntzei aplikatzeari buruzkoa; Europako Batzordearen 717/2014 (EB) Erregelamendua, 2014ko ekainaren 27koa, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua arrantza- eta akuikultura-sektoreko minimis laguntzei aplikatzeari buruzkoa; Europako Batzordearen 360/2012 (EB) Erregelamendua, 2012ko apirilaren 25ekoa, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua interes ekonomiko orokortzat jotzen diren zerbitzuak ematen dituzten enpresentzako minimis laguntzei aplikatzeari buruzkoa; eta aplikagarriak izan daitezkeen Estatuko nahiz Europar Batasuneko zuzenbideko gainerako xedapenak.

3. oinarria.– Laguntza-lerroak eta diruz lagundu daitezkeen jarduketak.

Laguntza hauek emango dira agindu honetako 1. oinarriko xedea lortzeko:

3.a.– Enpresei digitalizatzen hasten laguntzeko laguntzak. Aurrerapauso bat egin eta sistema digitalak txertatu nahi dituzten enpresak dira. Zerbitzuak finantzatzeko aukera izango dute, hala nola digitalizazio integraleko planak ezartzea eta enpresaren jarduera-eremu guztietarako –esate baterako, kudeaketarako, ekoizpenerako eta merkaturatzerako– tresna digitalak txertatzea. Diruz lagundu ahalko dira, besteak beste, honako jarduera hauekin lotutako jarduketak:

– Diagnostikoak garatzea, soluzio digitalak ezartzeko.

– Enpresan kudeaketa aurreratuko sistemak ezartzea, hala nola ERP (Enterprise Resource Planning edo enpresa-baliabideak planifikatzeko sistemak), business intelligence deritzona (negozio-inteligentzia), SMC, mantentze-lan prebentiboa, hornidura-katearen kudeaketa logistikoa, etab.

– Produktuaren bizi-zikloaren kudeaketa (besteak beste CAM CAE, PDM, DMF motako aplikazioen ezarpena).

– Merkataritza elektronikoa ezartzea: erosketa elektronikoak, salmenta elektronikoak, B2B (business to business) proiektuak, B2C (business-to-consumer) proiektuak eta abar.

– Telelana txertatzeko edo hobetzeko sistemak sustatzea, duten izaeragatik EAEko elikakatearen eta zuraren katearen sektoreak berezkoa duen aldiberekotasunik –ez fisikorik ez denborazkorik– gabe egiteko aukera ematen duten zereginak gauzatzean.

– Eskuratutako tresnak abian jartzeko beharrezkoak diren prestakuntza-jarduketak programatzea eta eskaintzea.

3.b.– Digitalizazio-fase aurreratuan dauden eta 4.0 teknologia txertatu nahi duten enpresetarako laguntzak. Diruz lagundu ahalko dira, besteak beste, honako jarduera hauekin lotutako jarduketak:

– Enpresen digitalizazio-egoeraren diagnostikoa, askotariko 4.0 teknologien ezarpen-maila baloratzeko.

– Mota hauetako azpiegiturak garatzea:

- Plataforma txertatuak, biltegitartzeko, kontrolerako, alertak sortzeko, negozio-analitikako eta txostenak sortzeko oinarritzko funtzionalitateekin.

- Datuak, kudeaketa-sistema korporatiboak eta enpresarako edo balio-katerako garrantzitsuak diren kanpo-datuak biltegitartzeko plataforma digitalekin osatzea.

- Makina eta sistema industrial guztiak plataforma digitaletan txertatuz amaitzea.

- Prozesu industrial guztietan zibersegurtasun-soluzio oso bat ezartzea: segurtasun-soluzioak gaitzea, gorabeherak eta arrotzak antzemateko eta horiei denbora errealean erantzuteko.

– Digitalizazioa ekoizpen-prozesuan eta produktuaren kontrolean:

- Ikuskapen-sistemak eta sentzorika aurreratua eratzea.

- Soluzio automatizatuak eta sistema robotikoak planifikatzea eta diseinatzea.

- Prozesuko datu garrantzitsuak lortu eta txertatzea historikoen ekoizpena eta sorkuntza kudeatzeko plataforman.

- Prozesuak optimizatzea, datuak tratatzeko teknikak aplikatuz (ikaste automatikoa eta abar).

- Prozesuen eta produktuaren datuak digitalizatzea eta plataforman edo hodeian ostatatzea.

- Gizakia-Makina interfazea (HMI) hobetzeko plan bat egitea eta abian jartzea, soluzio digitalen bidez (adib.: sentsoak, tableta, etab.), langileen gaitasunak, prestakuntza (adib.: langile berriak), osasuna eta laneko segurtasuna hobetzeko, besteak beste.

– Elikakatearen, zuraren katearen eta horien industriaren negozio-datuak analizatzea:

- Datuak analizatzeko ereduak garatzea ikaste automatikoko tekniken eta abarren bidez.

- Ekoizpen-prozesua optimizatzeke eta produktuaren kalitatea, segurtasuna eta osotasuna ziurtatzeko aurreikuspen- eta agindu-ereduak garatzea: bai enpresaren barruko prozesuaren mailan (adib.: prozesuaren efizientzia hobetzea), bai balio-katearen mailan (prozesuen artean).

- Enpresatik edo balio-katetik kanpoko datuak txertatzea, merkatuari, bezeroari, sare sozialei, klimari, inguruneari eta abarri buruzko datuak barne.

- Katearen ekosistema/konektagarritasuna / enpresa-inteligentzia:

- Ekosistemako eragile guztiekin datuak partekatzeko eta ondoriozko IPR (jabetza intelektuala eta industrial) kudeatzeko plana definitzea.

- Merkatuaren eta kontsumitzaileen eskariaren zaintza eta prospektiba, denbora errealean.

- Hornitzaileekin, bezeroekin eta azken erabiltzaileekin –adibidez, kontsumitzaileekin– lehen harreman digitalak garatzea (esaterako, eskariaren araberako eskaeren automatizazioa).

- Kudeaketa indibidualizatu eta proaktiboa duen eta bezero edo azken erabiltzailearengana (adibidez, kontsumitzailea) bideratutako arreta-sistema bat ezartzea.

- Katearen gainerako mailekin, hornitzaile nagusien, bezeroen eta kateko beste eragile batzuen informazio-sistemekin osatzea.

- Informazio partekatuaren trazabilitaterako, kalitate-kontrolerako eta subiranotasunerako sistema bat ezartzea.

- Negozio-eredu berriak sortzea, datu adimendunen kudeaketan eta tratamenduan funtsatuta.

- Elkarlaneko berrikuntzara, gardentasunera, komunikaziora eta abarretara bideratutako Open Data plataformak garatzea.

- Eskuratutako tresnak abian jartzeko beharrezkoak diren prestakuntza-jarduketak.

Euskal Autonomia Erkidegoko elikakatean eta zuraren katean eragina duten eta digitalizazio-fase aurreratuan dauden enpresen proiektuak bakarrik kalifikatu ahal izango dira digitalizazio-proiektu estrategiko gisa.

4. oinarria.– Onuradunak.

3. oinarrian adierazitako proiektuetarako laguntzen onuraduna hauetako edozein izan daiteke, baldin eta EAEko elikakatekoa edo zuraren katekoa bada:

A) Enpresak, edozein forma juridiko dutela ere. Hona sailkapena:

1.– Enpresa txiki eta ertainak (ETEak). Mota horren barnean honako hauek bereizten ditugu:

- Mikroenpresa: 10 langile baino gutxiago izanik urteko negozio-bolumenean edota urteko balantze orokorrean 2 milioi euroko zenbatekoa gainditzen ez duena.

- Enpresa txikia: 50 langile baino gutxiago izanik urteko negozio-bolumenean edota urteko balantze orokorrean 10 milioi euroko zenbatekoa gainditzen ez duena.

- Enpresa ertaina: gutxienez 50 pertsonari baina 250 pertsonari baino gutxiagori lana ematen dien eta, gehienez ere, 50 milioi euroko urteko negozio-bolumena edo, gehienez ere, 43 milioi euroko urteko balantze orokorra duten enpresak.

2.– Enpresa handiak; alegia, enpresa txiki eta ertainen definiziotik kanpo geratzen direnak.

B) Elkartek.

C) Enpresa-elkartek.

D) Nortasun juridikorik gabeko pertsona fisiko edo juridiko pribatuen elkarteak eta ondasun-erki-degoak. Bertan parte hartzen duten enpresa guztiak joko dira onuraduntzat, eta guztiek bete beharko dituzte agindu honetan ezarritako betekizun eta baldintzak. Elkarteen eskabideek berariaz adierazi behar dituzte elkarteko kide bakoitzak proiektua gauzatzeko hartzen dituen konpromisoak eta bakoitzari aplikatu beharreko zenbatekoa, horiek ere onuradun gisa hartuko baitira. Dena den, taldearen ordezkari edo ahaldun bakar bat izendatu beharko dute, zeinak nahikoa botere izango baitu, onuradun gisa, taldeari dagozkion egitekoak betetzeko, eta kide bat izendatu beharko dute funtsen hartzaile izateko, zeinak banatuko baitizkie funtsok taldeko gainerako kideei. Elkarreak ezin dira desegin Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuko 44. artikulua, 32. m) artikularekin batera, finkatzen duen preskripzio-epea igarotzen den arte.

5. oinarria.— Diruz lagundu daitezkeen kostuak.

Diruz lagundu daitezkeen kostutzat hartuko dira 3. oinarrian deskribatutako jardueri lotutako aholkularitza, ingeniartza, hardware eta softwareko kostuak, eta SaaS soluzioen eta cloud eredu- gisako zerbitzu lagungarriak, baldin eta honako baldintza hauek betetzen badituzte:

– 2022ko urtarrilaren 1etik 2022ko abenduaren 31ra sortutako edo fakturatutako kostuak, urteko proiektuen kasuan; edo 2023ko abenduaren 31ra artekoak, zenbait urtetarako proiektuen kasuan.

– Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 31. artikuluan ezarritakoari jarraikiz, diruz lagundu daitezkeen gastuaren zenbatekoak Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legean –horren bidez, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten da Espainiako ordenamendu juridikora– kontratu txikirako ezarritako zenbatekoak gainditzen dituzenean, gutxienez hiru eskaintza –zenbait hornitzailearenak– eskatu beharko ditu onuradunak, obrarako konpromisoa kontratatatu aurretik, zerbitzua eman aurretik edo ondasuna entregatu aurretik, non eta, haien ezaugarri bereziak direla-eta, merkatuan ez den aski erakunde haiek egin, eman edo entregatzeko.

– Efizientzia- eta ekonomia-irizpideen arabera hautatuko da aurkeztutako eskaintzen artean, eta berariaz justifikatu beharko da hautu hori, memoria batean, proposamen ekonomiko merkeena ez denean. Eskaintza horiek justifikazioarekin batera aurkeztu beharko dira, edo, bestela, dirulaguntza-eskabidearekin batera.

– Honako hauek ez dira diruz lagundu daitezkeen kostuak izango: eskatzaileak berak edo taldeko enpresaren batek egindako lanak, aholkulariaren joan-etorrietako gastuak, material didaktikoak sortzea, aretoak alokatzea, dietak eta antzekoak. Gastu horiek bereizita agertu beharko dira fakturen kontzeptuan.

– Funtzionamendu- eta mantentze-gastuetan lagundu ahal izango da proiektua martxan jartzen den bitartean, gehienez ere 24 hilabetez.

6. oinarria.— Finantzaketa.

Agindu honetan ezarritako laguntzak finantzatzeko, 2022ko eta 2023ko ekitaldietarako, 2.000.000 euro bideratuko dira. Kopuru hori Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren –Euskal Autonomia Erkidegoko 2022. urteko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen abenduaren 23ko 11/2021 Legearen bidez onetsitakoen– kontura finantzatzeko da, eta horietatik 500.000 euro 2022rako ordainketa-kredituari dagozkio, eta 1.500.000 euro, berriz, 2023rako konpromiso-kredituari. Honela banatuko da:

A) 600.000 euro digitalizazio-prozesua hasten ari diren enpresa-proiektuei esleituko zaizkie; zehazki, 150.000 euro 2022ko ordainketa-kredituari dagozkio, eta gainerako 450.000 euroak, berriz, 2023rako konpromiso-kredituari.

B) 1.400.000 euro digitalizazio-fase aurreratuan dauden eta 4.0 teknologia txertatu nahi duten enpresen proiektuei esleituko zaizkie; zehazki, 350.000 euro 2022rako ordainketa-kredituari dagozkio, eta gainerako 1.050.000 euroak, berriz, 2023rako konpromiso-kredituari.

7. oinarria.— Baldintza orokorrak.

Agindu honetan iragarritako laguntzen onuradun izateko, oinarri honetan ezarritako baldintzak bete behar dira. Izan ere, oinarri honek —besteak beste— jasotzen ditu honako hauetan dauden baldintzak: Dirulaguntzei buruzko abenduaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuan. Hauek dira horiek guztiak:

1.— Diruz laguntzekoak diren jarduerak Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde-eremuan egitea.

2.— Egunean izatea zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak. Eskakizun hori bete beharko da hala onuradun izateko nola izaera horri eusteko dirulaguntzaren likidazioa egin arte. Beraz, alde horretatik, egiaztapenak egingo dira bai dirulaguntza ematen denean bai ordainketak egiten direnean.

3.— Dirulaguntzaren onuradun den pertsona fisikoa edo juridiko pribatua ez egotea krisian den enpresatzat hartuta, estatuek krisialdian dauden enpresa ez-finantzarioak salbatzeko eta berregituratzeko ematen dituzten laguntzei buruzko zuzentarauen arabera (2014/C 249/01).

4.— Inbertsioak ingurumenaren arloko eta arlo higieniko-sanitarioko arauak bete ditzala Euskal Autonomia Erkidegoan aplikatzeko den berariazko araudiarekin bat (21/2013 Legea, abenduaren 9koa, ingurumen-ebaluazioari buruzkoa, eta 10/2021 Lege Orokorra, abenduaren 9koa, Euskadiko Ingurumen Administrazioarena).

5.— Dirulaguntzak itzultzeko obligazioak ordainduta izatea, erregelamendu bidez ezarritako baldintzei jarraikiz, edo Dirulaguntzen Lege Orokorraren edo hori ezartzen duten beste lege batzuen arabera dirulaguntzak lortzeko aukera galtzea dakarren zehapenen bat jaso ez izana ebazpen irmo baten bidez. Pertsona onuradunek edo erakundeek dirulaguntzak itzultzeko betebeharren ordainketak egunean dituztela ulertuko da zorrak geroratuta edota zatikatuta daudenean, edo, bestela, dagokion itzultze-ebazpena dela-eta horiek etetea erabaki denean. Eskakizun hori bete beharko da hala onuradun izateko nola izaera horri eusteko dirulaguntzaren likidazioa egin arte. Beraz, alde horretatik, egiaztapenak egingo dira bai dirulaguntza ematen denean bai ordainketak egiten direnean.

Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Orokorreko Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategineko 50.4 artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, onuradunei dirulaguntzak eta laguntzak emateko eta, bidezkoa denean, ordaintzeko ezinbestekoa da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta beraren erakunde autonomoek ematen dituzten izaera bereko laguntzen edo dirulaguntzen arloan hasita dauden eta oraindik izapidetzen ari diren itzulketa- eta zehapen-prozedura guztiak amaitzea.

6.— Dirulaguntza edo laguntza publikoak eskuratzea eragozten duen zehapen administratiborik edo penalik ez izatea, ezta horretarako legezko inolako debekurik ere, sexu-diskriminazioagatiko debekuak barnean hartuta, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen azken xedapenetako seigarrenean zehaztutakoari jarraikiz.

7.– Konkurtso-deklaraziorik eskatuta ez izatea, prozeduraren batean kaudimengabetzat deklarata ez egotea, konkurtsoan deklarata ez egotea, salbu eta horretan eraginkortasuna hartu badu hitzarmen batek, esku-hartze judizialaren eraginpean ez egotea, edo desgaitua ez egotea Konkurtsoari buruzko uztailaren 9ko 22/2003 Legearen arabera, konkurtsoaren kalifikazio-epaian desgaituntzarako ezarritako aldia amaitu gabe.

8.– Dirulaguntzak lortzeko aukera galduta ez izatea ebazpen irmo baten bidez ezarritako zehapena dela-eta, edo honako delitu hauetakoren bat egin izanagatik: prebarikazioa, funtzionario-eroskeria, ondasun publikoak bidegabe erabiltzea, eragimen-trafikoa, iruzurrak eta legearen aurkako ordainarazpenak edo hirigintza-delituak.

9.– Kausaren batean errudun deklaratu izateagatik, Administrazioarekin egindako edozein kontraturen amaiera irmoa ebatzita ez izatea.

10.– Pertsona fisikoa, merkataritza-sozietateen administratzaileak edo beste pertsona juridiko batzuen legezko ordezkariak dutenak ez egotea Kargu publikodunen jokabide-kodea eta haien interes-gatazkak arautzen dituen ekainaren 26ko 1/2014 Legean ezarritako kasuren batean, edo Hauteskunde Araubide Orokorren ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoan araututako hautapen bidezko karguren bat ez izatea, lege horretan ezarritako baldintzetan. Horrez gain, ez egotea hauetan aurreikusitako kasuren batean: Estatuko Administrazio Orokorreko goi-kargudunen jarduna arautzen duen martxoaren 30eko 3/2015 Legea eta Administrazio publikoen zerbitzura dauden langileen bateraezintasunen abenduaren 26ko 53/1984 Legea.

11.– Erregelamenduz zerga-paradisu gisa kalifikatutako herrialde edo lurralde batean ez izatea zerga-egoitza.

12.– Elkarteen kasuan, horiek elkartzeko eskubidea arautzen duen martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoaren 4. artikuluan 5. eta 6. apartatuetan aurreikusitako debekuen kausetan nahastuta ez egotea. Eta zigor-arloko delituen bat egin duelako arrazoizko zantzuak egoteagatik inskribatzeko administrazio-prozedura eten ez zaiolako adierazpena, 1/2002 Lege Organikoaren 30.4 artikuluan xedatutakoa aplikatuta, dagokin erregistroan inskribatzeko ahala dagoela ziurtatzen duen ebazpen judizial irmoa eman ez bada.

13.– Berreskuratze agindu baten menpe ez egotea, Europako Batzordeak aurretiaz erabaki badu laguntza bat legez kanpokoa eta barne-merkatuarekin bateraezina dela.

14.– Dirulaguntzak lortzeko debekua izango dute, halaber, irizten bada, zuzentzen dituzten pertsonengatik edota beste zirkunstantzia batzuegatik, beste aurreragoko enpresa batzuen jarraipena direla edota beste enpresa batzuetatik eratorriak direla, eraldatze, bat-egite edo ondorengotza arrazoiengatik.

8. oinarria.– Eskabideak aurkezteko epea.

1.– Eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Eskabidearekin batera, oinarri honen 8. apartatuan eskatzen diren agiriak aurkeztu beharko dira.

2.– Bete egiten da hauetan xedatutakoa: irailaren 23ko 179/2014 Dekretuaren 8. artikuluan eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14. artikuluan.

a) Pertsona fisikoek modu presentzialean zein elektronikoan aurkez ditzakete eskabideak.

– Modu presentziala: eskabideak Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren bulegoetan aurkeztuko dira (Donostia-San Sebastián kalea 1 – 01010 Vitoria-Gasteiz) edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikulua xedatzen dituen tokietariko edozeinetan, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta haren erakunde autonomoen erregistroen sorrera, antolaketa eta funtzionamenduari buruzko apirilaren 29ko 72/2008 Dekretuarekin bat etorriz. Eskatzaileak postetxe batean aurkezten badu eskabidea, gutun-azal irekian egin beharko du, postako langileek zigila dezaten eta data ezar diezaioten. Eskabidea Zuzenean zerbitzuan aurkezteko ezinbestekoa izango da aurretik hitzordua eskatzea: <https://www.euskadi.eus/hitzordua-zuzenean>.

Hala ere, ahal den neurrian behintzat, eskabideak aurkezteko eta espedientea izapidetzeko bide telematikoa erabiltzea gomendatzen da.

– Bide elektronikoak: Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoan sartuta aurkeztuko dira eskabideak: <https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/1207202>

Eskabidea izapidetzeko eta dokumentazioa aurkezteko moduak (elektronikoa zein presentziala izan) ez du behartuko aurrerantzean ere prozedurako gainerako izapideak modu berean egitera, edonoiz alda daiteke eta.

b) Pertsona juridikoek eta urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14.1.a), b), c) eta d) artikuluetan aurreikusitako gainerako subjektuek bitarteko elektronikoak erabilia aurkeztuko dute eskabidea.

3.– Eskabidea aurkezteko, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoan eskuragarri dagoen eredu normalizatua erabili beharko da:

<https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/1207202>

4.– Eskabidearen ondorengo izapideak elektronikoki egiteko, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikora sartu beharko da, «Nire karpeta» atalera: 1207202

<https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>

5.– Eskabideak, erantzukizunpeko adierazpenak, justifikazioak eta gainerako ereduak izapidetzeko moduari buruzko zehaztasunak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoan daude eskuragarri:

<https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/1207202>

6.– Eskabidea ordezkari baten bitartez egiten bada, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 5. eta 6. artikuluetan xedatutakoaren arabera egiaztatu beharko da ordezkaritza, ahalordeen erregistro elektronikoaren bitartez:

<https://www.euskadi.eus/ordezkariek>

7.– Laguntza-eskabidearen ereduaren oinarritzko edukia oinarri hauen eranskin gisa argitaratu da.

8.– Eskabidearekin batera agiri hauek ere aurkeztu behar dira:

a) Pertsona juridikoek, eratzeko eskrituraren kopia bat eta estatutuen kopia bat (dagokion erregistroan sartu dela adierazten duen zigilua jarrita).

b) Hauek biltzen dituen memoria:

i) Beharren azterketa eta irtenbidearen egokitzapena.

ii) Espero diren emaitzak eta adierazleak.

iii) Aurrekontu xehatua.

iv) Aukeratutako alternatiba.

v) Garatu beharreko ekintzen deskribapena eta gauzatze-epea.

vi) Laguntza emanez gero, enpresan zenbateko hobekuntza ekarriko duen.

– Ingurumenaren, produktibitatearen eta jasangarritasun ekonomikoaren hobekuntzak sustatzea.

vii) Erakunde sustatzaileko plantillaren banaketa sexuaren arabera.

c) Izaera juridikorik ez duten pertsona fisiko edo juridiko pribatuen taldeei eta ondasun-erki-degoei dagokienez, kide guztiek sinatutako agiri bat, non izendatzen baita, batetik, ordezkari edo ahaldun bakarra, taldeari onuradun den aldetik dagozkion betebeharrak betetzeko ahalorde nahiko dituen, eta, bestetik, funtsen hartzaile izango den kide bat, elkarteko gainerako kideen artean funtsok banatuko dituen.

d) Eskatzaileak laguntza kuantifikatzeko aurkeztu nahi duen beste edozein dokumentazio osagarri.

e) Erantzukizunpeko adierazpena, non ziurtatzen baita eskatzaileak agindu honetako betekizun guztiak betetzen dituela, aurkezten dituen agiri guztiak egiazkoak direla eta 7. oinarrian ezarritako betekizunak betetzen dituela, hori egiaztatzeko dokumentazioa duela, eta Administrazioak eskatzen duenean haren esku utziko duela.

9.– Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritzak automatikoki egiaztatuko ditu bere zerga-betebeharren ordainketak eta Gizarte Segurantzarekiko ordainketak egunean dituela egiaztatzen duten agiriak, pertsona eskatzaileek edo onuradunek horretarako berariazko baimena eman beharrik izan gabe, hark berariaz aurka egiten dionean salbu, eta, kasu horretan, dagokion ziurtagiria edo dokumentua aurkeztu beharko du. Hori guztia Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen 1/1997 Legegintza Dekretuaren 50.3 artikulua aplikatuz, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 28.2 artikuluari dagokionez.

10.– Urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.3 artikuluan ezarritakoarekin arabera, oinarri honen 8. apartatuan eskatutako dokumentazioa administrazio honetan edo beste batean entregatzen denean eta eskatzaileak berariaz deklaritzen badu dokumentu horietan ez dela aldaketarik egin, horiek aurkeztutzat joko dira.

Eskatzaileak adierazi beharko du zein Administraziotan eta noiz aurkeztu diren dokumentuok, eta Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritzak elektronikoki bilduko ditu bere korporazio-sareen bidez.

Eskatzaileak ez badu nahi oinarri honen 8. apartatuan eskatutako dokumentazioa biltzea, berariaz agertu beharko da horren aurka, eta dokumentazioa aurkeztu beharko du.

11.– Laguntza-eskabidea, eskatzen den dokumentazioarekin batera, aukeratzen den hizkuntza ofizialean aurkeztu ahal izango da. Era berean, laguntza-eskabidearen ondoriozko jarduketetan, eta prozedura osoan, erakunde eskatzaileak hautatutako hizkuntza erabiliko da, Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legean ezarritakoaren arabera.

12.— Eskabideak oinarri honetan eskatutako dokumentazioa ez badauka, osorik ez badago edo akastuna bada, interesdunari jakinaraziko zaio hamar egun balioduneko epea duela hutsa zuzentzeko edo beharrezko agiriak eransteko. Halaber, adieraziko zaio horrela egin ezean atzera egin duela ulertuko dela, Elikagaien Kalitate eta Industriako zuzendariak ebazpena eman ondoren eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen (urriaren 1eko 39/2015 Legea) 21. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz.

13.— Enpresa txiki eta ertainek (ETE) izaera hori egiaztatu beharko dute, agiri hauek aurkeztuta:

A) Pertsona fisikoentzat: Pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergaren kopia, ekonomia-jardueren eranskinarekin batera, eskabidea aurkeztu deneko dataren aurreko ekitaldiari dagokiona.

B) Pertsona juridikoentzat: Eskabidea aurkeztu den dataren aurreko ekitaldiari dagokion sozietateen gaineko zergaren kopia.

Agiriekin batera, dokumentazioan jasotako egoera aldatu ez delako adierazpena.

14.— Edonola ere, Berrikuntza eta Elikagai Industriako Zuzendaritzak, aurkeztutako eskabidean adierazitakoa egoki ulertu, ebaluatu eta eskabidea izapidetzeko beharrezko iritzitako bestelako argibide edo agiri osagarriak eskatu ahal izango dizkio eskatzaileari.

Agindu honen 4. oinarriaren 1. apartatuaren C letran zehaztutako onuradunen kasuan, proiektuan parte hartzen duten enpresa edo erakunde bakoitzari buruzkoak izango dira oinarri honen 8. apartatuan adierazitako agiri horiek.

15.— Helbide honetan eskuratu daitezke Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioaren egoitza elektronikoa onartutako identifikazio eta sinadura elektronikorako bitartekoak:

<https://www.euskadi.eus/certificados-electronicos>

<https://www.euskadi.eus/ziurtagiri-electronikoak>

9. oinarria.— Azpikontratazioa.

1.— Onuradunak kontratatutako erakundeak hirugarrenei azpikontratatu ahal izango die, oso-osorik edo zati batean, diruz lagundutako jarduera. Jarduera gauzatzeko azpikontratazioa haren % 100erainokoa izango da.

2.— Baldin eta hirugarrenei azpikontratutako jardueraren zenbatekoak dirulaguntzaren zenbatekoa % 20 gainditzen badu, dirulaguntza 60.000 eurotik gorakoa izanik, idatzizko kontratua egin beharko da, zeina Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritzak baimendu beharko baitu kontratua formalizatu aurretik eta eskabidea aurkeztu ondoren.

Kontratua formalizatzeko baimen-eskabidea laguntza-eskabidearekin batera aurkeztuko da, eta onartze- edo ukatze-ebazpena, aldiz, aurkeztu den egunetik bi hileko epean emango eta jakinaraziko da; epe hori igarota, berariazko ebazpenik eman ez bada, eskabidea onartu dela ulertu ahal izango da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 24. artikuluan xedatutakoaren arabera. Prozeduraren ebazpenaren aurka, interesdunak gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango dio Nekazaritzako, Arrantzako eta Elikagai Politikako sailburuordeari. Horretarako, hilabeteko epea izango du ebazpenaren jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik aurrera, edo hiru hilabeteko epea administrazio-isiltasunak ondorioak izan eta hurrengo egunetik aurrera.

3.— Kontratu bat ezingo da zatikatu, kontratuaren zenbatekoa murriztu eta 2. apartatuko baldintzak bete beharra saihesteko.

4.– Kontratistek onuradunaren aurrean baino ez dute betebeharririk izango, eta onuradunari dagokio diruz lagundutako jarduera ondo gauzatzeko erantzukizun osoa Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren aurrean.

5.– Aurreko apartatuan jasotakoa betetzeko, onuradunen erantzukizuna da diruz lagunduko den jarduera itundua gauzatzean agindu honetan ezarritako mugak errespetatzen direla zaintzea, diruz lagundutako gastuen izaera eta zenbatekoari dagokionez; kontratistek, aldiz, agindu honen 15. oinarriaren 7. apartatuan adierazitako lankidetzaren betebeharra bete behar dute, eta muga horiek benetan errespetatzen dituzten ala ez behar bezala egiaztatzeke aukera eman.

6.– Alabaina, onuradunak ezingo du diruz lagundutako jardueraren gauzatze osoa edo partziala honako hauekin itundu:

A) 7. oinarrian ezarritako betekizunak betetzen ez dituzten pertsona fisiko edo juridikoak.

B) Kontratuaren xede den jarduera egiteko beste dirulaguntza batzuk jaso dituzten pertsona fisiko edo juridikoak.

C) Bitartekari edo aholkulariekin, horiei ordaindu beharrekoak eragiketaren kostu totalaren ehuneko jakin gisa zehazten badira; non eta ordainketa hori ez dagoen justifikatuta egindako lanak edo emandako zerbitzuak merkatuan daukan balioaren erreferentziaren arabera.

D) Onuradunarekin loturaren bat duten pertsona fisiko edo juridikoak, hauek gertatzen direnean izan ezik:

1.– Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritzaren aldez aurretiko baimena lortu izana.

2.– Dirulaguntzaren zenbatekoa ez izatea atxikitako entitateak egindako kostuarena baino handiagoa. Onuradunaren gastuak egiaztatzeke ezarritako baldintza beretan justifikatuta egiaztatuko da kostua.

E) Deialdi eta programa honetan laguntza eskatu duten, baina betekizunak betetzen ez dituztelako edo beharrezko balorazioa lortu ez dutelako laguntzarik gabe geratu diren pertsona fisiko edo juridikoak.

10. oinarria.– Balorazio-irizpide orokorrak.

1.– Proiektuak baloratzeko, bi alderdi hauek hartuko dira kontuan:

a) «Proiektu estrategikoaren» kalifikazioa. Honako irizpide hauek izango dira kontuan:

– Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak sektorerako egindako planekin eta estrategiekin lerrokatutako jarduerak: 10 puntu, gehienez.

• Gastronomia eta Elikaduraren Plan Estrategikoa: 5 puntu, gehienez.

• Elikagaien balio-katea digitalizatzeko esparru estrategikoa: 5 puntu, gehienez.

– Eragindako kate-maila bereizien kopurua: 20 puntu, gehienez.

• Maila bat, 0 puntu. Lau puntu emango dira maila bakoitzeko: 20 puntu, gehienez.

– Proiektuak balio-katean gora egiteko duen maila: 10 puntu, gehienez.

– Proiektuak 4.0 teknologia barne hartzea: 10 puntu, gehienez.

• Adimen artifiziala / Ikaste automatikoa / Ikuspen artifiziala: 2 puntu.

- Bloke-katea: 2 puntu.
- Datu handiak / Enpresa-inteligentzia: 2 puntu.
- Sentsorika / Gauzen Internet: 1 puntu.
- Zibersegurtasuna: 1 puntu.
- Robotika: 1 puntu.
- Posizionamendu globalari buruzko informazioa / Droneen teknologia: 1 puntu.
- Zientzia eta Teknologiaren Euskal Sareko eragileen/zentroen parte-hartzea: 10 puntu, gehienez.
- 5 puntu emango dira zentro bakoitzeko: 10 puntu, gehienez.

Aurreko irizpideetan gutxienez 40 puntu lortzen dituzten proiektuak estrategikotzat joko dira.

b) Jarduera-planaren balorazioa. Kontuan izango dira hurrengo irizpideak:

i) Aurkeztutako memoria teknikoaren kalitate egiaztatua; memoria horretan argi eta garbi azalduko dira helburuak, espero diren emaitzak, egutegia, egin beharreko zereginak, erantzukizunen banaketa, aurrekontua hainbanatzeko metodoak eta abar: 50 puntu, gehienez.

	Aurkeztutako memoriaren kalitatea.		50
1.1	Beharren azterketa eta irtenbide teknologikoaren egokitzapena	Gehienez	20
1.2	Esperotako emaitzak eta adierazleak	Gehienez	5
1.3	Aurrekontua egokitzea	Gehienez	5
1.4	Ingurumen-arloko hobekuntzak sustatzea	Gehienez	10
1.5	Hobekuntzak produktibitatean eta jasagarritasunean	Gehienez	10

ii) Enpresen arteko lankidetzak. Jarduerak beren lankidetzaren emaitza izan diren bi enpresak edo gehiagok gauzatzea, betiere nortasun juridikoa galdu gabe. Enpresa horietako batek laguntzaren eskatzaile eta onuradun gisa jardun beharko du, eta besteak edo besteek, berriz, erakunde kolaboratzaile gisa. Banaka egiten bada, 0 puntu. 5 puntu emango dira erakunde kolaboratzaile bakoitzeko: 10 puntu, gehienez.

iii) Oharra: onuradunarentzako laguntza bakoitza, horietako bakoitzaren partaidetza-ehunekoa oinarritzat hartuta.

iv) Enpresa ETE bat den. Enpresa onuraduna ETE gisa kalifikatuta egotea; mikroenpresen eta enpresa txiki eta ertainen definizioari buruzko Europako Batzordearen ekainaren 17ko 651/2014 (EB) Erregelamenduaren I. eranskinaren arabera. 10 puntu.

iv) Proiektuak 4.0 teknologia barne hartzea: 10 puntu, gehienez.

– Adimen artifiziala / Ikaste automatikoa / Ikuspen artifiziala: 2 puntu.

– Bloke-katea: 2 puntu.

– Datu handiak / Enpresa-inteligentzia: 2 puntu.

– Sentsorika / Gauzen Internet: 1 puntu.

– Zibersegurtasuna: 1 puntu.

– Robotika: 1 puntu.

– Posizionamendu globalari buruzko informazioa / Droneen teknologia: 1 puntu.

v) Sexua. Emakumeek sustatutako proiektuak 10 punturekin baloratuko dira.

vi) Proiektua lehentasunezko jarduketa-eremuetan (LJE) kokatuta egotea. Proiektua Eusko Jaurlaritzak lehentasunezko jarduketa-eremuetarako sustatutako programa espezifikoan kokatuta dago: 5 puntu.

vii) Zientzia eta Teknologiaren Euskal Sareko zentro batean parte-hartzea: 5 puntu, gehienez.

2.– Laguntza eskuratu ahal izateko, memoria teknikoaren kalitateari buruzko apartatua 30 puntu lortu beharko dira gutxienez, eta jarduketa-planaren balorazio orokorrean, berriz, 40 puntu.

3.– Aurkeztu diren eta gutxienerako puntuazioa lortu duten proiektuak ordaintzeko ordena zehazteko, estrategikotzat jotako espedienteak hartuko dira kontuan lehenengo, aurreko puntuko a) apartatua zehaztutakoaren arabera; horien ondoren, proiektu ez-estrategikoak hartuko dira kontuan. Gero, jarduketa-planaren balorazioan lortutako puntuazioaren arabera ezarriko da ordena, handienetik txikienera.

11. oinarria.– Laguntzen intentsitatea eta zenbatekoak.

1.– Laguntzaren gehieneko zenbatekoa ezartzeko, proiektuaren tipologia hartuko da kontuan:

– 3. oinarriko 3.a) apartatua ezarritako motako proiektuak (enpresak digitalizatzen hasteko laguntzak): laguntza 50.000 eurokoa izango da gehienez.

– 3. oinarriko 3.b) apartatua ezarritako motako proiektuak (digitalizazio-fase aurreratuan dauden enpresei 4.0 teknologiak sartzen laguntzeko laguntzak): laguntza 200.000 eurokoa izango da gehienez, estrategikotzat jotzen diren proiektuetan, eta 100.000 eurokoa gainerakoetan.

2.– 3. oinarriko 3.a) apartatua (enpresak digitalizatzen hasteko laguntzak) ezarritako motako proiektu guztietan diruz lagundu daitezkeen kostuen laguntzaren edo laguntza-ehunekoaren intentsitatea zehazteko, enpresa mota eta jarduketa-planaren balorazioan lortutako puntuazioa hartuko dira kontuan (10. oinarriko 1. apartatuko b puntuan ezarritakoaren arabera). 3. oinarriko 3.b) apartatua (digitalizazio-fase aurreratuan dauden enpresei 4.0 teknologiak sartzen laguntzeko laguntzak) ezarritako motako proiektu ez-estrategikoen kasuan, enpresa mota eta jarduketa-planaren balorazioan lortutako puntuazioa hartuko dira kontuan (10. oinarriko 1. apartatuko b puntuan ezarritakoaren arabera).

a) Elkartek, enpresa-elkartek, mikroenpresak, enpresa ertainak eta enpresa txikiak:

– Diruz lagundu daitezkeen kostuen % 60 emango zaie 80-100 puntu lortzen dituztenei.

– Diruz lagundu daitezkeen kostuen % 55 emango zaie 70-79 puntu lortzen dituztenei.

– Diruz lagundu daitezkeen kostuen % 50 emango zaie 60-69 puntu lortzen dituztenei.

– Diruz lagundu daitezkeen kostuen % 45 emango zaie 50-59 puntu lortzen dituztenei.

– Diruz lagundu daitezkeen kostuen % 40 emango zaie 40-49 puntu lortzen dituztenei.

b) Gainerako enpresak:

- Diruz lagundu daitezkeen kostuen % 30 emango zaie 80-100 puntu lortzen dituztenei.
- Diruz lagundu daitezkeen kostuen % 27,5 emango zaie 70-79 puntu lortzen dituztenei.
- Diruz lagundu daitezkeen kostuen % 25 emango zaie 60-69 puntu lortzen dituztenei.
- Diruz lagundu daitezkeen kostuen % 22,5 emango zaie 50-59 puntu lortzen dituztenei.
- Diruz lagundu daitezkeen kostuen % 20 emango zaie 40-49 puntu lortzen dituztenei.

3.– 3. oinarriko 3.b) apartatuan (digitalizazio-fase aurreratuan dauden enpresei 4.0 teknologiak sartzen laguntzeko laguntzak) proiektu estrategikotzat jotzen diren proiektuetan diruz lagundu daitezkeen kostuen laguntzaren edo laguntza-ehunekoaren intentsitatea zehazteko, enpresa mota eta jarduketa-planaren balorazioan lortutako puntuazioa hartuko dira kontuan (10. oinarriko 1. apartatuko b puntuan ezarritakoaren arabera).

a) Elkarreak, enpresa-elkarreak, mikroenpresak, enpresa ertainak eta enpresa txikiak:

- Diruz lagundu daitezkeen kostuen % 70 emango zaie 80-100 puntu lortzen dituztenei.
- Diruz lagundu daitezkeen kostuen % 65 emango zaie 70-79 puntu lortzen dituztenei.
- Diruz lagundu daitezkeen kostuen % 60 emango zaie 60-69 puntu lortzen dituztenei.
- Diruz lagundu daitezkeen kostuen % 55 emango zaie 50-59 puntu lortzen dituztenei.
- Diruz lagundu daitezkeen kostuen % 50 emango zaie 40-49 puntu lortzen dituztenei.

b) Gainerako enpresak:

- Diruz lagundu daitezkeen kostuen % 45 emango zaie 80-100 puntu lortzen dituztenei.
- Diruz lagundu daitezkeen kostuen % 42,5 emango zaie 70-79 puntu lortzen dituztenei.
- Diruz lagundu daitezkeen kostuen % 40 emango zaie 60-69 puntu lortzen dituztenei.
- Diruz lagundu daitezkeen kostuen % 37,5 emango zaie 50-59 puntu lortzen dituztenei.
- Diruz lagundu daitezkeen kostuen % 35 emango zaie 40-49 puntu lortzen dituztenei.

12. oinarria.– Laguntzen kudeaketa.

1.– Gai honetarako sortutako Balorazio Batzordeari dagokio aurkeztutako eskabideak aztertzea eta ebaluatzea, bai eta esleipen-proposamenak gertatzea ere.

Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritzako titularrak izango du agindu honetan araututako laguntzak kudeatzeko eskumena.

2.– Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren barruko Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritzaren Ikerketa Programen arduraduna izango da Balorazio Batzordeko burua. Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritzako teknikari bat eta HAZI fundazioaren ordezkari bat batzordekideak izango dira, eta lehenengoak idazkari-lanak beteko ditu. Balorazio Batzordearen osaeran, gaikuntza, konpetentzia eta prestakuntza egokia duten emakume eta gizonen presentzia orekatua bermatuko da, alde batera utzi gabe Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialen ezagutza nahikoa izatea.

3.– Eskabideak aztertu eta ebaluatzeko lan materialak HAZI Fundazioko langileek egingo dituzte, eta Balorazio Batzordeari aurkeztuko dizkiote, Balorazio Batzordeak dagokion erabakia har dezan.

4.– HAZI Fundazioak (HAZI) erakunde kolaboratzaile gisa jardungo du, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 12. eta 13. artikuluetan ezarritako terminoetan, eta arau horren 16. artikuluko oinarrizko xedapenetan eta 53. artikuluko xedapenetan ezarritakoaren arabera.

Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak bere gizarte-xedearekin lotutako lan, zerbitzu eta jarduketak gauzatzeko eskatuko dio HAZIri, betiere horretarako eskumen administratiboak egikaritu behar ez badira. Era berean, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak beharrezkotzat jotzen dituen jarraibideak ezarri ahal izango ditu agindu zaizkion lanak eta zerbitzuak betetzeko, deialdi honetara aurkez daitezkeen proiektuen espezifikotasuna dela eta. HAZI administrazio horren bitarteko propioa denez, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 32. artikuluekin bat etorritz esleituko dira eginkizunak, dagokion enkarguaren bidez.

HAZIk honako eginkizun hauek egingo ditu:

a) Aurkeztutako proiektuen eskabideak hasiera batean ebaluatzea aurkeztutako dokumentazioa gainbegiratzuz; hala badagokio, zerbait zuzentzea proposatuko dio organo kudeatzaileari.

b) Eskatzaileek laguntzak jasotzeko ezarrita dauden baldintzak eta betekizunak betetzen dituztela egiaztatzea eta, hala badagokio, organo kudeatzaileari horiek zuzen ditzala proposatzea.

c) Aurkeztu diren eskabideak aztertu eta ebaluatzea. Ezarritako ebaluazio-organoari laguntza ematea eskabideak aztertzeko eta ebaluatzeko lan materialetan, ezarrita dauden irizpideen arabera.

d) Erakunde onuradunei laguntzak ordaindu aurretik diruz lagundutako ekintzak egin izana eta ekintzen kostua ziurtatzen dituzten agiriak egiaztatzea eta, hala badagokio, organo kudeatzaileari horiek zuzen ditzala proposatzea.

e) Dirulaguntzaren xedea den jarduera egin dela eta haren helburua bete dela egiaztatzea, eta dagokion jarraipena egitea, ziurtatzeko laguntzak emateko eta proiektuak gauzatzeko baldintzak betetzen jarraitzen dutela.

f) Onetsitako proiektuen kontrola eta jarraipena egiteko prozesuak definitu eta ezartzea.

g) Lortutako emaitzen amaierako ebaluazioa egitea.

h) Programa behar bezala kudeatzeko behar diren jarduketetan laguntzea, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak hala aginduz gero.

i) Programa honen kudeaketan Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak burutzen dituen egiaztatze-jarduerak onartzea.

j) Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailari proposatzea dirulaguntzak behar bezala kudeatzeko administrazio-neurriak edo bestelako neurriak har ditzala, erakunde onuradunak agindu honetako baldintza eta betekizunak ez betetzeagatik hartu behar diren neurriak barne.

5.– Balorazio Batzordea baliozkotasunez eratuta geratuko da bilerak eta eztabaidak egiteko eta erabakiak hartzeko, baldin eta burua, idazkaria eta gutxienez gainerako kideetako bat bertaratzen badira. Kide anitzeko organo honen funtzionamenduari zerikusia duen eta apartatu honetan aurreikusi ez den orotan, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 15. artikulua eta hurrengoak aplikatuko dira, osagarri modura.

6.– Ebaluazio-prozesuan, komenigarritzat hartzen bada, planetan aldaketak sartzea iradoki ahal izango diete entitate eskatzaileei HAZI Fundazioko langileek, proiektuak ezarritako helburuetara hobeto egokitu daitezen.

Balorazio Batzordeak, bere eginkizunak betetzeko, arloko aditu diren pertsoneri eskatu ahal izango die hala bileretan parte hartzeko nola aholkularitza emateko, beharrezko irizten dionean.

7.– Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritzako zerbitzu teknikoek eskabide bakoitzean egiaztatuko dute betekizunak betetzen direla, eta berariaz jasota utziko dute hori.

Balorazio Batzordearen osaera Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, Nekaritzako, Arrantzako eta Elikagai Politikako sailburuordeak emandako ebazpen baten bidez.

8.– Balorazio Batzordearen egitekoak hauek izango dira:

a) Aurkeztutako eskabide guztiak aztertzea, eta aplikatzekoa den araudia betetzen ez dutenak baztertzea. Horrez gain, araudia betetzen ez duen eskabide bakoitza baztertzeko arrazoiak zerrendatuko ditu.

b) Aplikatu beharreko araudia betetzen duten eskabideak ebaluatzea, eta jarduerak eta diruz lagundu daitezkeen kostuak 3. eta 5. oinarrietan ezarritakora egokitzen direla egiaztatzea.

c) Balorazio-irizpide eta laguntzak kuantifikatzeko irizpide objektiboetan oinarrituta, onuradun bakoitzari zenbateko laguntza eman proposatzea.

9.– Balorazio Batzordeak ebazpen-proposamena aurkeztuko dio Elikagaien Kalitate eta Industriako zuzendariari. Proposamenak gutxienez agindu honen 14. oinarrian aipatzen den edukia jasoko du.

13. artikulua.– Ebaluatzeko prozedura.

1.– Agindu honetan araututako laguntzak norgehiagoka bidez esleituko dira.

2.– Agindu honetan jasotako laguntzak honen arabera esleituko dira: azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren 51.4 artikulua. Eskabidea akastuna bada eta zuzendu behar bada, zuzenketa egin deneko eguna hartuko da aurkezpen-datatzat.

3.– Laguntzen ebaluazioa eta kuantifikazioa egiteko, Balorazio Batzordeak kontuan hartuko du ea egokitzen diren jarduketan izaera eta edukia eta diruz lagundu daitezkeen kostuak 3. eta 5. oinarrietan aurreikusitakora, bai eta 10. oinarrian ezarritako ebaluazio-irizpideak ere.

14. oinarria.– Ebazpena, ebazteko eta jakinarazteko epeak, jakinarazteko era eta errekursoak.

1.– Aurkeztutako eskabidea eta dokumentazioa aztertu ondoren, Balorazio Batzordeak, laguntzak baloratzeko eta kuantifikatzeko irizpide objektiboetan oinarrituz, proposamen bat egingo du onuradun bakoitzari eman beharreko laguntzaren zenbatekoari dagokionez.

2.– Aurreko apartatuan aurreikusitako proposamena jaso ostean, Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritzako titularrak ebazpena emango du, eta, hor, laguntza eman edo ukatuko zaio eskatzaileari.

Hartu beharreko ebazpenak honako informazio hau izan beharko du gutxienez:

A) Baietsitako eskabideei dagokienez:

1.– Onuradunen izena edo izen soziala, eta IFK edo NAN.

2.– Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontuen bidez finantzatutako zenbatekoa eta ordaintzeko modua eta epeak.

3.– Diruz lagundu daitezkeen jarduketak eta kostuak, kasuan kasuko laguntzaren zenbatekoa adierazita.

4.– Proiektua gauzatzeko epea eta proiektuak gauzatzeko epearen bukaera-data.

5.– Laguntza nortasun juridikorik gabeko elkarte bati emanez gero, elkarteko kide bakoitzak proiektua gauzatzeko hartzen dituen konpromisoak eta bakoitzari aplikatu beharreko zenbatekoa islatu beharko dira.

6.– Laguntzaren minimis izaera, Europako erregelamendu aplikagarriaren arabera.

B) Ezetsitako eskabideei dagokienez:

1.– Eskabidea aurkezten duen pertsonaren edo sozietatearen izena, IFK edo NAN zenbakia.

2.– Laguntza ukatzeko arrazoiak.

3.– Laguntza ukatzeko ebazpenak ez du agortzen administrazio-bidea, eta halako ebazpenaren aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkez diezaioke interesdunak, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Politikako sailburuordeari, hilabeteko epearen barruan, jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita.

4.– Lehiaketa-prozeduraren ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 45.1.b) artikuluekin bat etorritik. Argitalpen horrek jakinarazpen-ondorioak izango ditu.

Horrez gain, eta informazio gisa, ebazpen osoa helaraziko zaie interesdun guztiei, eta, gainera, ebazpenean interesdun bakoitzari berariaz eragiten dioten alderdiak identifikatuko dira. Informazioa modu elektronikoa helaraziko da, EAEko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko «Nire karpeta» zerbitzuaren bidez.

Nolanahi ere, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratutako data joko da jakinarazpen-datatzat.

5.– Prozedura hori ebazteko eta Ebazpena jakinarazteko, sei hilabeteko epea izango da gehienez. Epe hori bukatu eta berariazko ebazpenik eman eta jakinarazten ez bada, eskatzaileek ezetsitza jo beharko dute eskabidea, hala ezarrita baitago Euskal Autonomia Erkidegoko 2021. urteko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen otsailaren 1eko 1/2021 Legearen Azken Xedapenetako Hirugarrenean eta Dirulaguntzei buruzko abenduaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 25.5 artikuluan.

6.– Prozeduraren ebazpenaren aurka (ez dio amaiera ematen administrazio-bideari), gorako errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio Nekazaritzako, Arrantzako eta Elikagai Politikako sailburordeari, hilabeteko epean, ebazpenaren jakinarazpena jasotzen dutenetik aurrera, edo, edozein unetan, administrazio-isiltasunaren ondorioak gertatu eta hurrengo egunetik aurrera, betiere Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. eta 122. artikuluei jarraikiz.

7.– Orobat, agindu honetan aurreikusitako laguntzak eman, eta, hala behar badu, ordaindu ahal izateko, onuradunak amaituta eduki beharko ditu Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak edo haren erakunde autonomiadunek emandako izaera bereko laguntzen edo dirulaguntzen esparruan hasi diren itzultze- edo zehapen-prozedura guztiak, prozedura horiek oraindik izapidetze-aldian badaude, behintzat.

Prozedurak, amaieran, laguntza publikoak eskuratzeko desgaikuntza badakar, edo laguntza itzultzeko betebeharra ezartzen badu, eta dirua ez bada itzuli borondatez itzuli beharreko epean, emandako dirulaguntza indargabetu egingo da, onuradun izateko debekua izateagatik.

15. oinarria.– Onuradunen betebeharrak.

Agindu honek arautzen dituen dirulaguntzen onuradunek oinarri honetan ezarritako baldintzak bete behar dituzte. Baldintza horiek baldintza hauek guztiak jasotzen dituzte: Dirulaguntzei buruzko 2003ko abenduaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 14. eta 46. artikuluetako baldintzak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 50.2 artikuluko baldintzak; hauek dira horiek guztiak:

1.– Laguntza emateko ebazpenak eta, hala badagokio, laguntza luzatzeko ebazpenak xedatzen duen epean egitea diruz laguntzen den jardura; deialdiaren urtean hasi behar da inbertsioa edo gastua.

2.– Dirulaguntza zertarako eman den, xede horrexetarako erabiltzea.

3.– Emandako dirulaguntza onartzea. Horri dagokionez, hamabost eguneko epean, dirulaguntza eman zaiola jakinarazi eta biharamunetik zenbatzen hasita, dirulaguntzaren onuradunak dirulaguntzari berariaz uko egin ezean, dirulaguntza onartu duela ulertuko da.

4.– Emandako laguntzaren zenbatekoarekin ondasun inbentariagarriak eskuratu, eraiki, birgaitu eta hobetzen badira, dirulaguntza eman den helbururako bideratu beharko dira ondasunak, gutxienez horiek gauzatu eta hurrengo 5 urteetan –erregistro publiko batean inskribatu beharreko ondasunen kasuan– edo hurrengo 2 urteetan gainerako ondasunen kasuan.

5.– Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritzari jakinaraztea jardura edo proiektua partez edo osorik gauzatu dela eta haren esku jartzea hala egin dela egiaztatzeko beharrezkoak diren agiri guztiak.

6.– Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailari, Ogasun eta Ekonomia Sai-leko Kontrol Ekonomikoko Bulegoari eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiari, jasotako laguntzak nola erabili diren eta haien helburuak bete ote diren fiskalizatzeko eskatzen duten informazio guztia eman beharko zaie.

7.– Beste dirulaguntza edo laguntza batzuk eskatzen badizkiote administrazioen bati edo erakunde publiko edo pribaturen bati diruz laguntzen den ekintza bera finantzatzeko, Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritzari jakinarazi behar diote, eta, hala badagokio, eman egin dizkietela ere jakinarazi behar diote, idatziz, beste dirulaguntza edo laguntza horiek eman dizkietela jakin eta hamabost egun balioduneko epean.

8.– Dirulaguntza emateko kontuan hartzen den egoera subjektibo edo objektiboren bat aldatzen bada, aldaketaren berri ematea Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritzari, idazki bidez.

9.– Gastuei eta diruz lagundutako jardueri buruz ematen den informazio edo publizitate guztian, argiki jasotzea Eusko Jaurlaritzaren funtsekin finantzatu direla jarduerok, Eusko Jaurlaritzaren erakunde-nortasunaren eskuliburu arautzen duen abuztuaren 31ko 318/1999 Dekretuan xedatuarekin bat.

10.– Merkataritza-legeriak eskatutako terminoetan ikuskatutako kontabilitate-liburuak, erregistro izapidetuak eta gainerako dokumentu guztiak izatea, eta deialdi bakoitzean finantzatutako inbertsioarekin lotutako inbertsio eta gastu guztietarako kontabilitate-kode egoki bat edo kontabilitate-sistema bereizi bat mantentzea, araudiak finkatzen dituen kontrolak egin ahal izateko.

11.– Jasotako funtsak zertan erabili diren justifikatzen duten agiriak gordetzea, agiri elektronikoak barne, egiaztatze eta kontrolatzeko jarduketetan erabil baitaitezke.

12.– Eskabidean jakinaraztea ea sartuta dauden ala ez Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak eta haren erakunde autonomoek emandako izaera bereko laguntzen edo dirulaguntzen esparruan hasiera eman zaion edozein itzulketa- edo zehapen-prozeduratan, eta zeintzuk diren zehaztea.

16. oinarria.– Gauzatzeko gehieneko epeak.

1.– Inbertsioak edo gastuak urtebetean edo hainbat urtetan gauzatu ahal izango dira. 2022ko aurrekontu-ekitaldian hasi behar dira diruz laguntzekoak diren ekintzak.

2.– Urteko proiektuen exekuzio-epea 2022ko abenduaren 31n amaituko da.

3.– Hainbat urtetako proiektuak gauzatzeko epea 2023ko abenduaren 31n amaituko da.

17. oinarria.– Gastua justifikatzea.

1.– Dirulaguntzei buruzko abenduaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 30. artikulua betez, dirulaguntza jaso duen inbertsio- edo gastu-proiektuaren betearazpena eta onuradun izateko eskatutako baldintza eta kondizioak betetzen direla justifikatzeko, agiri hauek aurkeztu beharko zaizkio landa-garapenaren arloko Zuzendaritza eskudunari:

a) Egindako jarduketak justifikatzeko memoria bat, jarduketa-planaren betetze-mailari eta jardueren gauzatze-mailari buruzko informazioa eta laguntza emateko kontuan hartutako betekizunen eta baldintzen betetze-mailari buruzko informazioa bilduko dituen.

b) Faktura originalak eta frogak gisa balio bera duten gainerako agiriak, merkataritzako trafiko juridikoan balio dutenak edo administrazio-eraginkortasuna dutenak, faktura jaulkitzeko beharrik ez dagoen kasuetan, Fakturazio-betebeharrak arautzeko Erregelamendua onartzen duen Errege Dekretuaren 3. artikuluari jarraikiz betiere (azaroaren 30eko 1619/2012 Errege Dekretua), eta dagokien ordainketa-frogagiria.

c) Adierazpen bat, zehazten duena fakturak eta ordainketak justifikatzeko gainerako egiaztagirak ez direla aurkeztu diruz lagundu daitezkeen beste programa batzuk justifikatzeko edo, hartarako aurkeztu badira, zehazten duena zer programa justifikatzeko aurkeztu diren eta faktura edo egiaztagiri bakoitzaren zer ehuneko lagundu den diruz.

2.– Foru-ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko zerga-betebeharrak egunean dauden, Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritzak egiaztatuko du, automatikoki. Hala ere, eskatzailerak berariaz uka dezake laguntza-eskabidean inplizituki dagoen baimen hori, eta, hala egiten badu, ziurtagiria edo eskatzen zaion agiria aurkeztu beharko du, betiere urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28. artikulua 2. apartatua xedatutakoaren arabera.

3.– Elikagaien Kalitate eta Industriako zuzendariak dokumentu gehiago eskatu ahal izango ditu, egoki baderitza. Eskabide horrek arrazoitua izan beharko du.

4.– Aurreko apartatuetan aipatutako agiriak aurkeztu ondoren, proiektuaren azken ebaluazioa egingo dute Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritzako langileek, eta proiektuak berarekin soilik inbertsioa edo soilik gastua badakar, edo inbertsioa eta gastua elkarrekin, proiektua gauzatu dela adierazten duen azken ziurtagiria egingo dute.

5.– Laguntzak modu egokian kudeatu eta ordaintzen direla bermatzeko, egindako gastua justifikatzeko agiriak aurkezteko epea 2023ko urtarrilaren 16ra artekoa izango da.

18. oinarria.– Dirulaguntzen ordainketa.

Erakunde onuradunak Eusko Jaurlaritzako Hirugarrenen Erregistroan jasota egon beharko du. Alta eman edo hirugarren interesduneko zure datuak aldatzeko, Eusko Jaurlaritzak emandako hirugarrenentzako erregistro telematikora jo beharko da, honako helbide honetan:

<https://www.euskadi.eus/altaterceros>

<https://www.euskadi.eus/hirugarrenak>

1.– Ordainketak honela egingo dira:

A) Ebazpenarekin batera, aurretiko lehen ordainketa egingo da, zeina emandako laguntzaren % 25en baliokide izango baita.

B) Urte bakoitzean, ordainketak kontura egin daitezke, proiektuak gauzatzeko erritmoaren arabera. Horretarako, interesdunek eskatu egin behar dute aurretik. Gehienez ere, konturako ordainketa bat egingo da urte bakoitzeko. Konturako ordainketa egiteko eskabidearekin batera, 17. oinarriaren 1. apartatua aipatzen diren agiriak aurkeztuko dira. Ezin izango da konturako ordainketarik eskatu ordainketa aurreratua justifikatu gabe.

2.– Zehapen-prozeduraren batean edo dirulaguntzen itzultze-prozeduraren batean egonez gero, laguntza jasotzeko, lehenik hura amaitu beharko da. Prozeduraren ondorioz laguntza publikoak jasotzeko desgaitasuna edo itzultzeko betebeharra ezarriko balitz, itzulketa ez bada borondatezko aldi egiten, baldintzapean emandako laguntza indargabetu egingo da, onuradun izateko debekua dakarten egoeretako batean egoteagatik. Hala dagokionean, dirulaguntza hauek onuradunei ordaintzeko, dirulaguntzak itzultzeko betebeharren ordainketak egunean izan beharko dira.

3.– Inbertsioak ez badira egiten gehieneko epeen barruan, edo inbertsioa edo gastua egin izana egiaztatzeko agiriak ez badira aurkeztu epe barruan, onuradunek dirulaguntza hartzeko eskubidea galduko dute, eta, hala badagokio, agindu honen 21. oinarriko itzultze-prozedura jarriko da abian.

4.– Izaera juridikorik ez duten pertsona fisiko edo juridiko pribatuen taldeei eta ondasun-erkidegoei dagokienez, funtsen hartzaile izateko izendatu den kideari egingo zaio ordainketa, eta hark banatuko ditu taldeko gainerako kideen artean.

19. oinarria.— Dirulaguntzaren baldintzak aldatzea.

1.— Beste erakunde publiko nahiz pribatu batetik beste laguntza edo dirulaguntzaren bat jasoz gero, idatziz justifikatu eta jakinarazi beharko zaio Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritzari, eta, horren ondorioz, baliteke dirulaguntza emateko ebazpena aldatzea; kasu horretan, dena dela, agindu honetan ezarritako gutxieneko baldintzak eta laguntza ematea eragin zuen helburua gorde beharko dira. Horretarako, Elikagaien Kalitate eta Industriako zuzendariak dagokion aldaketa-ebazpena emango du, hala egokituz gero, emandako dirulaguntzaren zenbatekoak oinarri berriaren arabera doitzeko. Hala bada, abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan ezarritako itzultze-prozedurari ekingo zaio.

2.— Jarduketek, nahitaez, aurkeztutako laguntza-eskabidean eta dokumentazio osagarrian jasotakoak bildu beharko dituzte, eta Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritzak horietan aldaketak egiteko baimena eman ahal izango du, baldin eta erakunde onuradunak aldeztu aurretik justifikatu baditu aldaketa horiek, eta jarduketan izaera eta lortu nahi diren helburuak indargabetzen ez badira. Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritzak aurkeztutako aldaketa-eskabide guztiak ebaluatuko ditu, eta hilabeteko epean ebatziko du horiek baimendu edo ukatzea. Epea igaro eta ebazpenik eman ez bada, eskabidea ukatutzat joko da.

3.— Baldin eta egindako inbertsioaren edo gastuaren behin betiko benetako kostua txikiagoa bada onartutako eta dirulaguntza emateko erreferentziatzat hartutako aurrekontua baino, eta laguntza helburu bererako erabiltzen bada, emandako dirulaguntzaren zenbatekoa txikitu egingo da, dagokion proportzioan, Elikagaien Kalitate eta Industriako zuzendariaren likidazio-ebazpen baten bidez, eta, gero, oinarri berriari aplikatuko zaio dirulaguntzaren ehunekoa.

20. oinarria.— Atzera egitea eta uko egitea.

1.— Eskatzaileak atzera egin ahal izango du, betiere laguntzak emateko prozeduraren ebazpena jakinarazi aurretik. Horretarako, atzera egiteko eskabide bat helarazi beharko dio Elikagaien Kalitate eta Industriako zuzendariari, idatziz, eta hark, ebazpen baten bidez, bete-betean onartuko du eskabidea, eta amaitutzat emango du hari dagokion prozedura.

2.— Laguntzaren onuradunak 15 eguneko epea izango du emandako laguntzari uko egiteko, dirulaguntza eman izanaren jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita, 15. oinarriko 3. apartatuan jasotakoari jarraikiz. Horretarako, emandako laguntzei uko egiteko idazkia Elikagaien Kalitate eta Industriako zuzendariari aurkeztu beharko zaio; hark, ebazpen baten bitartez, bete-betean onartuko du eskabidea, eta amaitutzat deklaratu du horri dagokion prozedura.

Uko-egitea onartuta, onuradunak automatikoki galduko du ebazpen bidez onartutako eskubidea, bai eta emandako laguntza kobratzeko eskubidea ere.

21. oinarria.— Ez-betetzeak.

1.— Ez-betetzeen kausak izango dira, gutxienez, hauek guztiak:

- a) Agindu honetan ezarritako betebeharrak edozein ez betetzea.
- b) Dirulaguntza emateko ebazpenean ezartzen diren baldintzak, halakorik izanez gero, ez betetzea.
- c) Laguntza emateko xedea ez betetzea.

d) Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen 53. artikuluan eta Dirulaguntzei buruzko 2003ko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 37. artikuluan aurreikusitako itzulketa-kausaren bat denean.

2.– Onuraduna aurreko apartatuan zerrendatutako ez-betetzeen kausetako baten egoeran badago, Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritzak, 15 eguneko epean, interesdunari entzunaldia emango dion itzultze-espeditatea egin ondoren, egokitzen jotzen dituen alegazioak egin ditzan, ebazpen baten bidez, dirulaguntza jasotzeko eskubidea kenduko dio onuradunari, partez edo osorik, eta, hala badagokio, kobratu dituen laguntzak eta dirulaguntzen arloan aplikatu beharreko berandutze-interesak itzuli beharko dizkio onuradunak Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari, partez edo osorik, proiektuaren gauzatze-mailaren proportzioan, Euskal Autonomia Erkidegoaren aurrekontu orokorren kargura ematen diren dirulaguntzen bermeei eta horiek itzultzeari buruzko abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan eta Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginaren 53. artikuluan eta 2003ko dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 37. artikuluan xedatuari jarraikiz. Gainera, dagozkion gainerako neurriak hartuko dira. Ez-betetzea inbertsioei eusteko epeari badagokio, emandako dirulaguntzaren itzulketa «*pro rata temporis*» egingo da.

Aipatutako zenbateko horiek diru-sarrera publikotzat hartuko dira lege-ondore guztietarako.

3.– Arau-hauste administratibotzat har daitezkeen gertakarien ondorioz hasten bada itzulketa-prozedura, organo eskudunari jakinaraziko zaizkio gertakariok, dagozkion zehapen-prozedura has dezan.

22. oinarria.– Bateragarritasunak.

1.– Agindu honetan aurreikusitako dirulaguntzak bateragarriak dira beste edozein erakunde publiko zein pribatuk xede bererako emandako beste edozeinekin, betiere dirulaguntza guztien baturak gaintitzen ez baditu agindu honek egoera bakoitzerako ezarritako gehieneko ehunekoak. Muga hori gaintutako balitz, gaintikinar dagozkion zenbatekoa kenduko zaio laguntzari, Elikagaien Kalitate eta Industriako zuzendariaren ebazpen baten bidez, erakunde onuradunari entzun ondoren.

2.– Aurreko apartatuak xedatzen duena gorabehera, baldin eta laguntzen mugak desberdinak badira, onuradunarentzat onuragarriena den muga hartuko da kontuan gaintikina kalkulatzeko.

23. oinarria.– Datuen babesari buruzko oinarritzko informazioa.

Datu pertsonalak izen hau duen tratamendu-jardueran tratatu eta sartuko dira: Elikagaien kalitate eta industriaren arloko laguntzak.

– Arduraduna: Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritza, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila.

– Xedea: Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritzaren laguntzen, beken eta I+Garen jarraipena, kontrola eta kudeaketa.

– Legitimazioa:

• Tratamendua beharrezkoa da interes publikoaren izenean edo tratamenduaren arduradunari esleitutako botere publikoen izenean burututako eginkizun bat betetzeko.

– Hartzaileak:

• Euskal Autonomia Erkidegoko beste organo batzuk.

• Nekazaritza eta Arrantzako Estatistika Ofizialen Zerbitzua (SEAS). Erakunde ordaintzailea.

– Eskubideak: eskubidea duzu datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezerezteko, bai eta informazio gehigarrian adierazitako beste eskubide batzuk ere.

– Informazio gehigarria: datuen babesari buruzko informazio gehigarri eta xehea duzu gure web-orrian:

<https://www.euskadi.eus/informazio-klausulak/web01-sedepd/eu/gardentasuna/001600-cap2-eu.shtml>

– Araudia:

- Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra (<https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/PDF/?uri=CELEX:32016R0679&from=ES>).

- 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzkoa (https://www.boe.es/boe_euskera/dias/2018/12/06/pdfs/BOE-A-2018-16673-E.pdf).

II. ERANSKINA

ESKABIDEA EGITEKO INPRIMAKIAREN EDUKIA

Laguntzaren eskabide-inprimakia webgune honetan dago eskuragarri: <https://www.euskadi.eus/servicios/1207202>

Oinarrizko eduki hau du:

Eremu generikoak:

- Identifikazio-agiriaren mota.
- Zenbakia.
- Izena (pertsona fisikoek soilik).
- Lehen abizena (pertsona fisikoek soilik).
- Bigarren abizena (pertsona fisikoek soilik).
- Sexua (pertsona fisikoek soilik).
- Entitatearen izena (pertsona juridikoek soilik).
- Telefono finkoa.
- Telefono mugikorra.
- Helbide elektronikoa.
- Lurralde historikoa.
- Jakinarazpen- eta komunikazio-bidea.
- Abisuak jasotzeko helbide elektronikoa.
- Abisuak jasotzeko mugikorra.
- Jakinarazpen, komunikazio eta abisuen hizkuntza.

Eremu osagarriak:

Honako hauek ziurtatzeko erantzukizunpeko adierazpenaren arabera:

– Enpresa ez dago krisialdian, estatuek krisialdian dauden enpresa ez-finantzarioak salbatzeko eta berregituratzeko ematen dituzten laguntzei buruzko zuzentarauen arabera (2014/C 249/01).

– Proiektuak Euskadin ingurumen-gaietan aplikatu beharreko berariazko araudia betetzea (21/2013 Legea, abenduaren 9koa, Ingurumen-ebaluazioari buruzkoa; eta 10/2021 Legea, abenduaren 9koa, Euskadiko Ingurumen Administrazioarena) –dagokionean, inbertsio-proiektuek ingurumenean duten eragina ebaluatuko da, aurrez–, baita higiene-araudia eta inbertsio bakoitzari aplikatu beharreko Europar Batasuneko arauak ere.

– Jakinaraztea ea diruz lagundu daitekeen proiektu bererako bestelako dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide ekonomikorik eskatu zaion administrazio publiko edo erakunde publiko nahiz pribaturen bati, baita eskuratu den edo ez ere.

Entitatea	Eskatutako zenbatekoa	Lortutako zenbatekoa

– Azken hiru urteetan, edozein administrazio publiko edo erakunde publikoren aldetik minimis laguntzak eskatu dituen edo ez, eta laguntza horiek jaso dituen edo ez (Batzordearen 2013ko abenduaren 18ko 1407/2013 (EB) Erregelamenduaren aplikazio-esparrua; Batzordearen 2013ko abenduaren 18ko 1408/2013 (EB) Erregelamenduaren aplikazio-esparrua; Batzordearen 2014ko ekainaren 27ko 717/2014 (EB) Erregelamenduaren esparrua; Batzordearen 2012ko apirilaren 25eko 360/2012 (EB) Erregelamenduaren esparrua).

	Entitatea	Eskatutako zenbatekoa	Lortutako zenbatekoa
2020			
2021			
2022			

– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak eta haren erakunde autonomoek emandako izaera bereko laguntza eta dirulaguntzen esparruan abiarazi duten itzultzeko edo zehatzeko prozeduraren batean sartuta dagoen edo ez.

– EAEko Administrazioak eta haren menpeko erakundeek emandako laguntzen edo dirulaguntzen esparruan, itzulketa- edo zigor-prozeduretako kantitate zehatzak ordaintzeko betebeharrari dagokionez egunean dagoen edo ez. Betebehar horien ordainketak egunean dituztela ulertuko da, baldin eta zorrak geroratuta eta zatituta badaude, eta, gainera, gaineratutako zor, interes eta gastu guztiak estaliko dituen bermea eratu bada.

– Ez du dirulaguntza edo laguntza publikoak eskuratzea eragozten duen epai irmorik (zigor- edo administrazio-arloan), ezta horretarako legezko inolako debekurik ere, sexu-bereizkeriagatiko debekuak barne, Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasunerako 2005eko otsailaren 18ko 4/2005 Legearen azken xedapenetako seigarrenean xedatutakoarekin bat etorritik.

– Konkurtso-deklarazioa ez du eskatu, edozein prozeduratan kaudimengabetzat ez jo izana, konkurtsoan deklaraturik ez egotea, salbu eta horretan eraginkortasuna hartu badu hitzarmen batek, esku-hartze judizialaren eraginpean ez egotea edo desgaitu ez izana, Konkurtsoari buruzko uztailaren 9ko 22/2003 Legearen arabera, konkurtsoaren kalifikazio-epaian ezarritako desgaitutza-denboraldia amaitu gabe.

– Dirulaguntzak lortzeko aukera galduta ez izatea ebazpen irmo baten bidez ezarritako zehapena dela-eta, edo honako delitu hauetakoren bat egin izanagatik: prebrikazioa, funtzionario-eroskaria, ondasun publikoak bidegabe erabiltzea, eragimen-trafikoa, iruzurrak eta legearen aurkako ordainarazpenak edo hirigintza-delituak.

– Ez du administrazioarekin egindako kontraturen baten suntsiarazpen irmorik eragin, suntsiarazpen-arrazoi horren errudun deklaratu dutelarik.

– Pertsona fisikoa, merkataritza-sozietateen administratzaileak edo beste pertsona juridiko batzuen legezko ordezkariak dutenak ez daude Kargu publikodunen jokabide-kodea eta haien interes-gatazkek arautzen dituen ekainaren 26ko 1/2014 Legean ezarritako kasuren batean, edo ez daukate Hauteskunde Araubide Orokorri buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoan araututako hautapen bidezko karguren bat, lege horretan edo arlo hau arautzen duen araudi autonomikoan ezarritako baldintzetan.

– Ez du galdu laguntza edo dirulaguntza publikoak lortzeko aukera ebazpen irmo baten bidez ezarritako zehapena dela-eta, edo honako delitu hauetakoren bat egin izanagatik: prebrikazioa, funtzionario-eroskeria, ondasun publikoak bidegabe erabiltzea, eragimen-trafikoa, iruzurra eta legearen aurkako ordainarazpenak edo hirigintza-delituak.

– Ez du zerga-egoitza erregelamenduz zerga-paradisua gisa kalifikatutako herrialde edo lurralde batean.

– Elkarrekin kasuan, horiek elkartzeko eskubidea arautzen duen martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoaren 4. artikuluen 5. eta 6. apartatuetan aurreikusitako debekuen kausetan nahastuta ez egotea. Eta zigor-arloko delituen bat egin duelako arrazoizko zantzuak egoteagatik inskribatzeko administrazio-prozedura eten ez zaiolako adierazpena, 1/2002 Lege Organikoaren 30.4 artikuluan xedatutakoa aplikatuta, dagokin erregistroan inskribatzeko ahala dagoela ziurtatzen duen ebazpen judizial irmoa eman ez bada.

– Ez dagoela berreskuratze-agindu baten mende, Europako Batzordeak aurretiaz erabaki badu laguntza bat legez kanpokoa eta barne-merkatuarekin bateraezina dela.

Era berean, erantzukizunpeko adierazpen hau aurkezteak –39/2015 Legearen 69. artikulua aplikatuta– esan nahi du betebeharrak horiek betetzen dituela, hala ziurtatzen duen dokumentazioa duela, hura eskatzen zaionean Administrazioaren eskura jarriko duela, eskubidea aitortzen zaion bitartean betebeharrak horiek betetzeko konpromisoa hartzen duela; badakiela funtsezko zehaztasunik ezak, faltsukeriak edo ez-egiteak erantzukizun penalak, zibilak edo administratiboak izan ditzakeela; eta Administrazioak egiaztatze, kontrolatzeko eta ikuskatzeko ahalmena duela.

Laguntza honen organo kudeatzaileak automatikoki egiaztatuko ditu NAN, IFK, zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duten ziurtagiriak eta Gizarte Segurantzarekiko ordainketak egunean dituela egiaztatzen duten agiriak. Horretarako, pertsona eskatzaileek edo onuradunek ez dute berriazko baimenik eman beharrik izango, berriaz uko egiten diotela adierazten denean salbu, eta, kasu horretan, dagokien ziurtagiria edo eskatutako dokumentua aurkeztu beharko dute. Hori guztia 1/1997 Legegintza Dekretuaren 50.3 artikulua aplikatuta, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duena, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 28.2 artikuluari dagokionez.

- Berriaz ukatzen dut baimena, eta adierazpen honekin batera aurkeztuko ditut ziurtagiriak.